

UNIBERTSITATE HEDAKUNTZAKO IKASTAROAK

DEVSECOPS ETA SEGURTASUNA SOFTWAREAREN BIZI-ZIKLOAN (1. ED.)

INFORMAZIO OROKORRA

IKASTURTEA: 2025/2026

ARLOA: Ikasketa Teknikoak

KREDITUAK: 2 ECTS (*) kreditu

MATRIKULA TASA: 121€ (Asegurua 4,00 €)

ARDURADUN AKADEMIKOAK: Alexander Mendiburu Alberro eta Jose Luis JodraLuque

AURKEZPENA

Ikastaro honetan, softwarearen garapenaren bizi-zikloan (SDLC) segurtasuna nola integratzen den eta DevSecOps bidez kontrolak nola automatizatzen diren landuko da. Metodologiak, tresnak eta markoak aztertuko dira, segurtasuna gehitzen laguntzen dutenak, eskakizunen fasetik hasi eta hedapen eta eragiketa jarraituraino, garapen-, eragiketa- eta segurtasun-taldeen arteko lankidetzak sustatuz. Ikasleak ikasiko du CI/CD pipeline seguruak diseinatzen eta zabaltzen, analisi automatikoak txertatzen (SAST, SCA, DAST, IaC, edukiontziak, sinadurak) eta ahultasunak eta sekretuak kudeatzeko politikak aplikatzen.

Helburuak

- Softwarearen betekizunetan, diseinuan, garapenean, probetan eta hedapenean segurtasuna integratzea.
- CI/CD pipeline-etan segurtasun-kontrolak eta -balidazioak automatizatzea, SAST, SCA, DAST, IaC scanning, edukiontzien analisia eta sinadura digitalak barne.
- Ahultasunak, sekretuak eta osagaiak kudeatzea Software Bill of Materials (SBOM) eta hornikuntza-kate seguruak estandarren bidez.
- Threat modeling ereduak eta garapenean segurtasuna onartzeko irizpideak aplikatzea.
- DevSecOps inguruneetako behagarritasunaren, ahulezien lehentasunen eta atzeraelikatze jarraituaren printzipioak ulertzea.

Edukiak

1. SDLC seguruak eta segurtasun-baldintzak
2. Pipeline CI/CD seguruak
3. Analisi automatizatua eta kontrol jarraitua
4. SupplyChainSecurity eta hedapen seguruak
5. Eragiketa eta erantzuna DevSecOps inguruneetan

ZURE BILA GABILTZA

Zibersegurtasuna konpetentzia estrategikoa bihurtu da sektore guztietako erakundeentzat. Errealitate horren jakitun, Euskal Herriko Unibertsitateko Informatika Fakultateak zazpi ikastaro eskaintzen ditu, beren profil profesionala eguneratu, indartu edo birbideratu nahi duten pertsonentzat.

IRTEERA PROFESIONALAK

Eskaintzen diren ikastaroei esker, hainbat ezagutza lortuko dituzu zibersegurtasunaren alorrean, eta hainbat eskumen lortuko dituzu zibersegurtasunaren oinarrietan, gobernuan eta betetzean, arkitektura eta garapen seguruetan, gertakarien ikerketan, segurtasun erasokor eta defentsiboan, edo OT inguruneke zibersegurtasunean.

BALDINTZAK

Ez dago prestakuntza honetarako baldintzarik, baina IKT arloan ezagutza eta esperientzia izatea gomendatzen da.

IRAKASKUNTZA

HASIERA ETA AMAIERA DATA: 2026/03/30etik 2026/05/10era

EMATEKO TOKIA: Birtuala

HIZKUNTZA: Euskera eta gaztelania

INFORMAZIOA/IZEN-EMATEA

SAIL EDO ORGANO ARDURADUNA: Informatika Fakultatea

HELBIDEA: Manuel de Lardizabal Pasealekua, 1. 20018 Donostia-San Sebastián

TELEFONOA: 943 015 020

POSTA ELEKTRONIKOA: dif.zibersegurtasuna@ehu.eus

(*) ECTS kreditu batek 25 orduko balioa du.